

MARISOL RAMIREZ / A. P.



Aitor Zuberogoitia

MONDRAGON
UNIBERTSITATEKO
IRAKASLEA

Hiru gogoeta aro berrirako

EGIN DUTE berba EAEko boto-kutxek eta jeltzaleak erraz gailendu dira. Ez da, beraz, abentura-haize handirik izango bazterretan, baina dudarik ez berandu baino lehen aldaketak izango direla EiTbN. Hiru gogoeta, horren harira.

– EiTb erakunde publikoa da, baina horrek ez du esan nahi unean uneko hauteskunde-emaitzen menpe egon behar duenik. Beronen izaera eta eginbideari buruzko kontsentsu zabala berritzeko garaia da (ez gaude duela 30 urteko kinka berean), eta, behin hori erdietsita, aginte politikoarekiko daukan autonomia sendotuko duten neurriak sustatu behar dira.

– EiTbK ez luke jarraitu behar izaten diglosia zurkaizteko tresna, bere hedabide batzuek ez lukete segitu behar euskaldunak gaztelaniaz berbetan jartzen, populazio-sektore zabal bati hizkuntza-errealitate jakin bat ezkututzen eta monolinguisismoan eroso bizitzeko makulua

EiTbK ez luke jarraitu behar izaten diglosia zurkaizteko tresna

eskaintzen. Telebistara etorrita, pentsa dezagun, Josu Amezagak planteaturikoari jarraiki, ez soilik euskal hizkuntza-komunitatea, ezpada gizarte osoa artikulatzeko funtsezko erreminta izango den ETB eleantza, euskara ardatz nagusi izango duena

eta egun eskura ditugun aukerak baliatuta (audio duala, azpidatziak) euskara ez dakitenak ere bere programaziora erakarriko dituena.

– Multieskaintza garaiotan euskal gizartearen egituratze-tresna nagusi eta erreferentzia eztabaia daezin bihurtzeko, azkenik, EiTbK ezinbesteko du komunitatea eratzen jarraitzea eta sustaia are sakonago errotzea, eta tokiko telebistarekin harremanak estutzeak horretarako

aukera eman diezaiokie (izan deskonexioen bidetik, izan Tokikomak iradokitako bisolairudun etxearen eraikuntzari lotuta). ■



MARISOL RAMIREZ / A. P.



Bernar Mandaluniz

LAN
MEDIKUNTZAN
ESPEZIALISTA

Osasun publikoa bermatzeko ildoak

OSAKIDETZAREN izen ona lehenagotik zetorren eta azkeneko legealdian neurri sendoak hartu ditu mantentze aldera, Madrilen presioa hein handi batean ekidinez: finantziazioa mantenduz, botika generikoen arloan gastua gutxituz, berrordainketari muzin eginez.

– Irabazlea EAJ da. Irizpide horren aldekoa da neurri handi batean behinik behin, nahiz eta osasun pribatuari ere keinuak egin: kohabitazioa hemen ere, agian.

– Legebiltzarrean talde sendoa dago EH Bildurekin. Bide honen defentsan adierazi du bere egitasmoa, eta bere xedea hori izango da: zerbitzu publikoa, gardena eta hurbila.

Honaino osasun publikoa mantentzeari buruzko irizpidea. Baina iraupena bermatzeko ahalegin asko egin beharko dugu:

– Antolakuntzaren hobekuntzak: sistemak zulo asko ditu eta eraginkorragoa egin behar da, gaixo eta erizainen arteko harremanak sendotuz eta hurbilduz.

– Lehen mailako artatze antolakuntza sendotu behar da eta kalitatez hornitu,

ospitaleak gaixoz gutxituz, bere eginkizun berezitik atera ez daitezten.

– Botika gastuak murrizten jarraitu behar da: bizitza medikalizatu dugu neurri handian.

– Osasun langileak zaindu, lan berezia denez arreta ere berezia behar dutelako: lan baldintzetan, lanaren onespenean eta egitasmoetan parte-hartze zuzenagoa izanez.

– Ospitaleko egonaldia laburtu, etxean gero eta arreta eta zerbitzu gehiagoz eta hobeagoz inguratuz gaixoa.

– Gaixotu aurretik prebentzio lana sustatu eta ugaritu, gaixotu aurreko programak eta osasuna sendotzeko egitasmoak martxan jarritz, beti ere, gizabanakoaren autonomia dugula helburu.

Programa hauetan, gizabanakoaren parte-hartzea ezinbestekoa da, gure helburuetan burujabetasunaz gain, gorputz jabetasuna ere aldarrikatu behar dugu.

Etorkizuna, osasunaren aldetik, arduratsua, kezkagarria eta interesgarria datorkigu, izan gaitzen partaide eta protagonista. ■

